

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure proiektuaren oinarria ez da soilik algaz sortutako bioerregaiaren ekoizpena, baizik eta bezeroekin eraikiko dugun harreman eredua. Gure ustez, energia berriztagarrien sektorean lan egiteak konfiantza, gardentasuna eta presentzia eskatzen ditu. Horregatik, lehen momentutik, harreman zuzena eta pertsonalizatua izango da gure lan egiteko modua.

Bezeroekin dugun lehen kontaktua, gehienetan, aurrez aurrekoa izango da. Gure taldea enpresetara bertara joango da, euren beharrak ezagutzeko, bioerregaiaren erabilgarritasuna aztertzeke eta irtenbide egokiena proposatzeko. Era berean, bezeroek gure instalazioak bisitatzeko aukera izango dute, ekoizpen-prozesua bertatik bertara ezagutzeko. Horrela, harremana ez da salmenta hutsera mugatuko, elkarlan iraunkor batean oinarrituko da.



Komunikazio digitalak ere paper garrantzitsua izango du, baina beti harreman pertsonala osatzeko, ez ordezkatzeko. Horretarako, webgune argi eta erabilgarria sortuko dugu, non gure produktuen ezaugarriak, ingurumen-onurak eta zerbitzu osagarriak azaltzen diren. Webgune horren bidez, bezeroek galderak egin, informazioa eskatu edo eskaerak abiatu ahal izango dituzte, baina beti pertsona baten erantzun zuzena jasoz.

Gure proiektua ezagutarazteko, ez gara komunikazio-kanal bakarrera mugatuko. Industria-guneetan, enpresa-elkarteetan eta energia berriztagarrien ekitaldietan parte hartuko dugu, bertan aurkezpenak, azalpen teknikoak eta informazio-saioak eskainiz. Modu honetan, gure bioerregaiak behar dituzten enpresetara zuzenean iristea lortuko dugu.

Bestalde, komunikazio tradizionalak ere kontuan hartuko ditugu. Kartelak, informazio-orriak eta dokumentu tekniko sinpleak erabiliko ditugu, bereziki teknologia digitalen erabilera mugatuagoa duten enpresentzat. Horrez gain, epe ertainera, irrati bidezko komunikazioa erabiltzea aurreikusten dugu, gure proiektua zabaltzeko eta sektore zabalago batera heltzeko.

Banaketari dagokionez, malgutasuna izango da gure ezaugarri nagusietako bat. Bioerregaiak kamioi edo furgonetaz entregatuko da bezeroaren instalazioetan, edo, nahi izanez gero, bezeroak berak jaso ahal izango du gure biltegian. Enpresa batzuekin,

gainera, hornidura jarraitua adostuko dugu, hilero edo epe jakin batean entrega finkoak eginez.

Erosketa-prozesua ahalik eta errazena izan dadin, hainbat aukera eskainiko ditugu: webgunearen bidez, telefonoz edo aurrez aurre egindako bileren bidez. Helburua da enpresa bakoitzak bere lan egiteko modura egokitutako bidea aukeratu ahal izatea.

Azken finean, gure asmoa argia da: bezero bakar bat ere ez uztea kanpoan. Bezeroak fisikoki gurekin egon ahal izan edo ez, beti izango du harreman zuzena, informazio argia eta laguntza pertsonalizatua. Horrela, algaz sortutako bioerregaiak benetan irisgarri eta erabilgarri bihurtuko ditugu, bai ingurumenarentzat, bai enpresentzat.